


Amaia Aldai lau t'erdiko azpitxapeldun

Abenduaren 21ean Gernikan jokatu zuen Dimakoaren eta Enara Gaminderen arteko final handia eta Laukizekoa nagusitu zuen, 22-10 eroso batez. Aldai onartu eban Gamindek "atzera eta aurrera" izan ebala partidua osoan baina harro agertu zuen egindako jokoagaz, "batez be urte txar" bat izan ostean: "Partidutik pozik urten nintzan; daukadan sensazioa da ondo jokatu nebala baina Enara gehiago izan zuen". **11. orrialdea**



Tubiren omenaldia argazkitan

Abenduaren 13an Dimako herriak eta herri kirol komunitateak omenaldia egin eutsan Jose Martin Bustinza "Tubi"-ri.

Ehundaka lagun eta dozenaka herri kirolari batu ziran Dimako frontoian eta ekitaldi sano hunkigarria izan zuen, Tubiren ibilbide oparoari -72 txapel- agurra emon eta oindino be herri kirolak bizirik dagozala aldarrikatuteko. Kirola bakarrik ez, euskal kultura be egon zuen presente ekitaldian: jantziak, bertsolariak eta musika.

Omenaldiko momentu hunkigarriena amaierara izan zuen, Juanxu Urkiagak gitarrea eta Tubik mikrofona hartuta, bete-beteta egoan frontoia *Xalbadorren heriotzean* kanteagaz burrunba egin ebanean.

Askoren memorian geratuko dan eguna izan zuen abenduaren 13koa, eta batez be Tubirenean, kirol ibilbide oparo bat baino, bidean egindako lagun piloa eta honeei emondako laguntasuna agerian itxi eban-
ta arrasti harek. **8. eta 9. orrialdeak**



ARRATIA

Gabonetako bigarren txanpa

Urte barrian sartuta, astebete faltau da Gabonei agur egiteko. Atzen urteetan legez, Erregetako Kabalgata Areatza, Bedia eta Igorren bakarrik egingo dira hilaren 5ean. Beste alde batetik, oporretan dagozan umeentzako puzgarri, jolas eta urtekerak dagoz programatuta. Musikeak be badauka bere lekua. **6. orrialdea**

LEMOA/ZEANURI

Lemoa eta Zeanurirako 2026ko aurrekontuak

Lemoan 5.343.164 euroko aurrekontua onartu da. Euskerea, segurtasuna eta bardintasuna indartu dira. Txiriboketako aparkalekua, Pozuetako zubia eta Kotxeretako proiektua be badagoz. Zeanurira 2.142.024 euro kudeatuko dira. Eskolako patioa eta Kultur Etxean obrak dagoz aurreikusita. **6. eta 7. orrialdeak**

IGORRE

Indarkeria bikarioaren gaineko proiektzino eta solasaldia egingo da Igorren

Hilaren 16an, *No estas loca: La verdad sobre la violencia vicaria* dokumentala proiektatuko da Lasarte Aretoan, 19:30ean. Dokumentalean 40 bat biktimak, epaile, psikologo, kazetari eta pediatriaren testigantzak batzean dira, tartean Irune Costumero igorretarrarenak. Berak, Maria Bestar dokumentalaren zuzendaria eta beste biktimak eta profesional batzuek hartuko dabe parte proiektzino osteko solasaldian. **5. orrialdea**

ENTZUTEN BADIZU

Bizitza gehiago da

Hobetu zure entzumena eta gozatu zoriontsu egiten zaituenaz.

Olaetxe
OPTIKA ZENTRUA

Deskatu zita 946 577 003

EKIN
EUSKAL KULTURAK

LAN PUBLIKOAK
UR ETA SANEAMENTU SAREAK
BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
PABILOIAK ETA URBANIZAZINOAK

94 631 72 57
ekin@ekinsl.eus

Igorre (Bizkaia)

Literatura txokoa

METAMORFOSIS

Oin dala hamabost bat urte, nik militetan neban talde feminis-teak konbidauta, beste batzukaz batera, Yayo Herrero pentsalari eta aktibista ekofeministeagaz bazkaltzeko aukerea euki neban. Orduan, atzera bueltarik ez eu-kan krisi sistemiko baten aurrean eta hainbat arlotan planetaren mugak gaindituta egon arren, militantzia ikusita, "lagun artean, behintzat" amilduko ginala esan eban txantxetan.

Baina liburu honetan esperan-tzea eskaintzen dau pentsalariak. Izan be, desesperantzearen kontra burrukan egin eta mundu osoan dagozan erresistentzia komunida-de eta ekintza txikietan fokua ipin-tea da liburuaren ekarpenetako bat. Herreroren eretxian, amildegia

saihestu daiteke gure gizartean metamorfosisa, hau da, iraultza antropologiko bat egin ezker. Eta ezkerak iraultza hau, metamorfo-si hau, bere egin beharko leuke eskoia eta ultraeskoiaaren diskurso derrotistei aurre egiteko.

Egoerearen azterketeagaz has-ten da liburua. Ikuspegi ekosozial batetik, kapitalismo estraktibistek nora ekarri gaituan eta norantza garoan aztertuten dau: horren ondorioz, desazkundea ez da hau-tazko kontu bat, bai ala bai gerta-tuko dan zeozar baino. Aukeran dagoana zera da, hori zelan egin. Estraktibismo eta konsumo mai-la honetan jarraitu ezker, berez etorriko da desazkundea modu katastrofikoan, baliabideak agor-tuta. Baina beste aukera bat be

badago eta da planetan bizi ga-ran guztiontzako etorkizun justua bermatuko dauan metamorfosi sozial bat bultzatutea. Garapena-ren desmitifikazioa egiten dau egileak liburuan eta "garapen jasangarria" oximoron bat dala dino. Beti gehiago gura eta euki beharrean, "nahikoa" izatea eta eukitea aldarrikatzen dau. Eta hori ez da utopia hutsa, horretan hasita dagozan talde eta komunitadeak munduko leku guztietan, edo as-kotan behintzat, dagoz; hau da, konsumismo honeri aurre egite-ko komunitade eta ekimen txiki ugari: konsumo taldeak, energia kooperatibak, laguntza sareak, ekofeminismo izenpean batzean diran talde desbardinak, eta beste prozesu komunitario parte-hartzai-

le asko, bizitzaren arlo guztietan sortzean diranak, tartean. Horreek guztiek, gizartearen metamorfosisa egin leikie, danon bizitzak posible egiteko planeta honetan.

Garrantzia handiko gaia landu-ten dau Herrero eta urtenbideak be emoten ditu *Metamorfosis* liburuan. Eduki aldetik sakona da, bai, baina ez da bape be latza irakurteko. Kontrara, forma aldetik be ederra da, metafora original eta esanguratsuz beteta dago eta irakurlea, ahots gozo batek interpe-lauta sentiduten da. Ez da pentsa-mentu hutsa, sentimentuak dagoz pentsamentu hori gorpuzten eta emozinoak transmitiduten. Edukia-ren zein formearen aldetik ederra eta hurbila da *Metamorfosis*.



Yayo Herrero
Metamorfosis. Una revolu-ción antropológica
Arcadia, 2025
384 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak
Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak
09:00etatik 22:00etara
Urtailaren 2tik 7ra
Traver Ibañez. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50 eta 649 686 305

22:00etatik 09:00etara
Gorria Montoya. Amorebieta-Etxano. (3-9)
Urtilaren 8tik 11ra
Badiola. Artea. Herriko Plaza 7
Tel.: 94 631 73 11 eta 629 463 048

22:00etatik 09:00etara
Melero. Amorebieta-Etxano. (10-16)
Urtilaren 12tik 18ra
Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1
Tel.: 94 673 93 95 eta 620 262 937

22:00etatik 09:00etara
Sarasketa. Amorebieta-Etxano. (17-23)
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara
Cometza, Ana. Francisco Kortabarria 2. Basauri.
Tel.: 94 449 05 87

Medikuak
Arantzazu, Artea, Areatza, Dima, Igorre eta Zeanuri: 94 600 74 63
Bedia eta Lemoa: 94 600 68 85
Ubide: 945 45 50 17

Zeberio: 94 500 67 95
Udaletxeak
Arantzazu: 94 631 56 89
Artea: 94 673 92 05
Areatza: 94 673 90 10
Bedia: 94 631 42 00
Dima: 94 631 57 25
Igorre: 94 631 53 84
Lemoa: 94 631 30 05
Ubide: 945 45 03 22
Zeanuri: 94 673 91 46
Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen Mankomunitatea 94 631 17 17
mankomunitatea@arratia.eus
Gorbeialde Landa Garapenerako Elkartea
94 631 55 25 / gorbeialde@gorbeialdea.com
Gertu bulegoa Igorre 94 406 80 00
Areatzako Parketxea 94 673 92 79
Igorreko Kultur Etxea 94 673 62 51
kulturetxea@igorre.net
Lemoako Kotxepin Kultur Etxea
kotxepin@lemoa.eus
Euskotren 94 433 33 33 / euskotren.eus
Areatzako Notariotza 94 673 92 26
Errota Fundazioa 688 854 543
info@errota.eus
Arratiako Musika Eskola
94 631 73 52 / www.arratiakomusikaeskola.eu

Bizkaibus 94 612 55 55
3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri
Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro. Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.
Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era. Orduro: 06:45etik 21:45era. Atzen zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era. Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

3911 Linea. Bilbo-Galdakao Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio
Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara orduro. Zapatu eta domeketan Durangoraino. Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era orduro.

Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik 21:10era orduro. Zapatuetan: 06:30etik 21:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 21:30era orduro.

3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar
Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era orduro.

Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik 21:00etara orduro. Zapatuetan: 06:20tik 21:20ra orduro. Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era orduro.

3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide
Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandio: 06:45etik 20:45era orduro. Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordukin behin.

Ubide: Lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordukin behin. Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordukin behin.

* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro. Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)
Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzunik.

Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzunik.

3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00; 11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

*Basauriraino bakarrik.

Basauritik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.

*Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.

Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

Ugaotik Arteara. Lanegun eta zapatuetan:

13:05, 15:30, 20:40.

Igorretik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:55ean.

Ugaotik Igorrera. Lanegun eta zapatuetan: 07:20ean.

Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunetan: 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriagatik Zeberiora. Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11
A3712 linea. Bilbo-Gasteiz
Lanegunetan: 06:45ean eta 08:45ean urteten dau Bilbotik. Zapatuetan: 08:45ean urteten dau. Jaiegunetan: 10:30ean urteten dau.

A3712 linea. Gasteiz-Bilbo
Lanegunetan: 15:15ean eta 16:15ean urteten dau Gasteizetik. Zapatuetan: 16:30ean urteten dau. Jaiegunetan: 16:30ean urteten dau.

Eskualdeko garraioa. Erreserbak 945 18 20 60
6A linea. Otxandio-Legutio
Lanegunetan: Ubiden 06:35ean, 07:15ean, 09:20an, 11:20an, 14:45ean, 15:25ean, 17:15ean eta 20:25ean. Astegoi eta jaiegunetan: 08:45ean, 11:55ean, 16:40an eta 18:40an.

6A linea. Legutio-Otxandio
Lanegunetan: Ubiden 09:05ean, 11:05ean, 14:30ean, 15:10ean, 17:00etan, 20:10ean eta 21:15ean. Astegoi eta jaiegunetan: 10:35ean, 13:40an, 18:25ean eta 21:30ean.

Lotura Gasteiz-Durango 18 lineagaz.

Argitaratzailea: Zertu Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** begitu@begitu.eus. **Webgunea:** www.begitu.eus. **Zuzendaria eta kudeatzailea:** Iñigo Iruarizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** inigoirua@begitu.eus. **Erredakzino burua:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** asierabrisketa@begitu.eus. **Erredakzinoa:** Asier Abrisketa eta Ager Barragan. **Webgunearen arduraduna:** Ager Barragan. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** begitu@begitu.eus. **Maketazinoa:** Iñigo Iruarizaga. **Banaketea:** Garbikuzi enpresea (Dima), Mikel Madrazo (Igorre), Ibai Zarrabeitia (Arantzazu, Areatza eta Artea), Alejandro Konadio (Bedia eta Lemoa), Irati Urien (Ubide), Kepa Artaraz (Zeanuri) eta Mikel Lazaro (Zeberio). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria, **Instagram:** @begitu.eus, **Mastodon:** @begitu, **X:** @BegituEus **YouTube:** @BegituAldizkaria

Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearnak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikau, eraldatu daiteke, beti be iturria aitatz eta egileza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatze.



Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:



ZEURE BERBEA

Eskerrik asko, bihotzez

Gripe A-k jota ospitalean ingresauteko zoritxarra (eta aldi berean suertea) izan dot. Esperientzia gogorra izan da, baina begiak zabaldu deustaz. Bertan errealidade oso desbardin bi, baina buztartuak, ezetu dodaz eta. Alde batetik, Osakidetzako langileak: garbitzaileak, medikuak, erizainak, zeladoreak... Kantsazino begietan izan arren, tratua beti izan da adeitsua, hurbila. Berbaz eta keinuz zaindua sentidu naz. Une horreetan gogora etorri jatan Bibliako pasarte bat: "Egiaz dinotsuet: nire senide txikienetako bateri egin deutzazue, niri egin deustazue" (Mt 25,40). Hori izan da nik jaso dodana: gizatasunez egindako zaintzea. Baina, bestetik, langile horreek bizi daben egoera latza ikusi dot. Batetik bestera galapan, deskantsu barik, lan-karga ikaragarriagaz eta personaleko baliabide eskasakaz. Ospitaleko pasilloetan gaixoak pilatuta, ohe librerik ez dagoalako. Ni

neu, domekako 21:00etatik martitzen eguerdira arte larrialdietan egon naz, egoera horren ondorioz. Egoera hori ez geunke normalizat hartu behar. Ez da bidezkoa ez gaixoontzat, ezta gu zaintzean gaituenentzat be. Horregaitik, eskaera xume baina beharrezkoa egin gura deusatz Osakidetzako sailburuari: mese-dez, zaindu Osakidetzako langileak. Emon baliabideak, denporea eta baldintza duinak. Izan be, eurak zainduta bakarrik egongo gara geu be ondo zainduta. Eta horregaitik, eskerrak emoteaz aparte, dei egin gura dot: zaintza ez dadila salbuespena izan, eguneroko oinarria baino. "Zure ogia gose danagaz partekatzea, eta behartsuak etxera biltzea; biluzia ikustean jantzea... Orduan, argia egunsentia bezala jaikiko jatzu, eta zure zauriak berehala sendatuko dira" (Is 58,7-8). Hortxe dago kakoa: zaintzan. Alkar zaintzean. Langileak zainduz, geu be sendatuten gara-ta. Eskerrik asko, bihotzez.

MARI LUZ YURREBASO GOYOAGA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: beginu@beginu.eus helbidera.

ALKARREGAZ



Lemoako Esku Pilota Taldea

Lemoako Esku Pilota Taldea 1984ko neguan sortu zan, hain zuzen be, lankidetzeta, alkartasuna, diziplina, bardintasuna eta errespetua ardatz modura, euskal pelotea Lemoako herrian sustatu eta Euskal Herritik zabaltzeko. Historikoki, Lemoako taldea erreferente izan da Bizkaiko lurraldean eta Euskal Herri mailan, txapelketa garrantzitsuetan lehiatuz eta irabaziz. Ikasturte honetan, kirol eskola eta federauak bateratuta, 80 pelotari inguruk parte hartzean dabe alkartean. Gainera, andrazkoen presentziak gorakada nabaria izan dau atzen urteotan. Zuzendaritza Batzorde batek koordinetan dau alkartea, zazpi pelotari gazte eta gurasoz osotua, non, txapelketetatik harago hainbat ekimen antolatzen dabezan. Aurrera begira, ibilbide oparo hau mantenu eta elikatzea izango da helburua, izakerea mantenuz.

ERETXIA

Pago bat zara Tubi

Abenduaren 3a zan, gure hizkuntzearen eguna. Beharretik urtenda berandu heldu nintzan Dimako ekitaldira. Oholtzara begira nengoan, neurean, fraketatik tiraka baten bat ebilela sentidu nebanean. Neskatotxo bat zan. Begi-parera makurtu nitxakonean holan esan eustan:

Gaur... Tubi etorri jaku eskolara. Ia berbaldia ondo egon zan eta lasto-fardoa noraino bota eban itaundu neutsan umeari. Zerura baino gorago!! Erantzun bitartean, begiak diz-diz, irribarretxo polit bategaz, galapan zoli jente artean galdu jatan.

Umearen erantzunak eta haren begi argiek, gerora, zer pentsau emon deustie. Sano emozio-nauta egoan, umeek munduz kanpoko baten bat ikusten dabe-neko arpegi zoragarri hori eukan margotuta. Handia zara gero, Tubi! Txikiak be, handik edo hemendik, igarri egiten dau. Eta, ez dira zure hirurogeta hamabi txapelak bakarrik ez, hor gehiago be badago... Ezin nei barbarik topau danori emoten deuskuzun hori argi adierazoteko. Daukazin, dakarguzun eta emoten deuskuzun "zeozar" hori handia, polita eta berezia da. Nahikoa da hori herriak maita zagizan, bihotzez gainera. Inongo duda izpi barik, argi baino argiago gelditu zan abenduaren 13an, zure agur-jaialdian.

Umetan ezetu zindudan zuen etxean, Elexatzun. Zuen lehen-gusuen alboan heldu nintzan Dimara, zurbil, txiki, erkin, garbetar eta kaletar. Han zengozen hiru anaiok, urre-koloreko ulematazadun eta itsasolako begi urdindun mutil indartsuak, baserriko beharretan, mundu handiko mundu txiki baten. Gu zuek egiten zenduenari begira, liluraz, harrituta. Han gengozan, kalekumeak eta baserrikumeak. Hur bizi ginan, eta era batera urrun.

Urte batzuk geroago saskiba-



IBON IZA
Tubiren laguna

loiak alkartu ginduzan. Partiduetara batera joaten hasi ginan zure esne koloreko Ford Fiestan, ni ume, zu gazte, nik hamasei, zuk hamazortzi. Akorduan daukat zelan aparketan zenduan autoa leku estuetan: musturra sartu, eperdia eskuz altxau eta hiru-lau golpetan, traust, barrura. Sinistu

be ez egitekoa! Gero, partidu osteetan, biok biotara, jairik jai joateko: Fika, Larrabetzu, Morga... Egan eta Akelarre, zenbat lastotxapel eta zenbat barre! Kotxean irrarik ez zenduan bertetan edo kantuan etxeratzen ginan. Eta, ibili honetan, ia gura ez dala, berba bi batu genduzan: Herria eta Kirola.

Saskibaloian nik baino urte gehiago emon zenduzan, gero jabalina jaurtiketara saltu egiteko. Barriz handik herri kirolek, harritik lasto-fardora, eta lastotik herrira, ibilian-ibilian, lastoaren inguruan topau dozu mundu eder bat, plaza bat, eta zure handitasuna agertzeko gune eder bat.

Pozik ibili zara herririk herri, auzorik auzo, plazarik plaza, bai lasto-botaten, bai lasto-altxetan. Hor dagoz zenbat gura marka, urteetan inork gaintu ezingo dauzanak. Eta, txapelak, hirurogeta hamabi. Ez da bromea gero!

Baina, Tubi, nik pentsau jentearen maitasunak eta babesak bete zaitu gehien-gehien zu. Sekulako kirolariak euki dozuz alboan, eta zazpi Euskal Herrietako jente maitagarria ezetuteko aukerea emon deustu honek kirolonek. Joan zaren leku guztietan gozo eta bero hartu zaitue, maitatu eta estimadu sentidu zara, igual izango da ba zure apaltasunak mugarik ez daukalako. Abenduaren 13an frontoi bat maitasunez beteteko kapaza izin zinan, personea, handia, berezia eta bakarra zarelako. Ikusgarria izan zan 800 persona zure suaren bueltan jantzan ikustea, egia esan, txapeldun handi batek merezi dauan agurra izan zenduan.

Labur esanda, umetan ikusi zindudazanetik pago bat topau neban zuga: trinkoa, sendoa, gerizpe handiko arbolea, inon arrakalarik ez daukana. Geroztik, nire abaroa izan zara, babes, leku bat, lagun handi bat. Gaurko hau zure berbakaz amaitu gura neuke:

"Txapelak kaxatan kabituten dira, baina emon deustazuen maitasuna ez jata bihotzean sartzean".

Eskerrik asko, Tubi!



LUMATUTEN



URTZI BARRENETXEA

Gozo, oingo
asteko
kreditu-txartela?

Mundu akademikoaren esparrutik urten dau gaiak ja, eta danon ahotan dabil. Antza, mikroplastikoak munduko txoko guztietan daukaguz, baita gure gorputz barruan be. Gehiago edo gutxiago, munduko zonaldearen arabera, baina danok irunsten doguz partikula horreek.

Newcastleko (Australia) unibersidadeak burututako ikerketa bat kopurua zehaztutera ailegau da. Mundu mailako media bost gramo mikroplastikokoa da aste-ko; gutxi gorabehera banketxeetako kreditu-txartel baten pisua. Kopuru hori urtebeteko dimensinora eroanda, 226 gramokoa izango leiteke; idea bat egiteko, panpin baten pisua (hori be izan ahal zan testu honen izenburua: *Jan dozu aurtengo Barbie?*).

Material hau ez da guztiz biodegradagarria, gizakiak sortu daualako petroleoaren sobretatik.

Natureak milioika urte behar dauz holango materialak bere mundura bueltetako eta, momentuz, zati txiki-txikietara baino ezin dau ekarri. Txataltxo horreexek gizakiok oindino zapaldu bako lekuetara be bidali doguz, Hego Polara zein goi mendi puntetara.

Daukien tainuagaitik, gorputzeko edozein ataletara sartzean jakuz: birikietara, burmuinera edo bihotzera. Jaio aurreko umeengan be topau dira errastuak, amak plazentearen bidez helarazota. Gorputzean, gugan, euki ahal dabezan eraginak ez dira guztiz argiak ze ointxe hasi dira horreek ikertuten, baia hainbat arazogaz daukien loturea argia ei da; besteak beste, arnasketa edo dementzia arazoak daukiezenengan.

Konponduten hasi beharrean, gauzea baltzago parauko dala emoten dau; izan be, plastikoen produkzioa eta erabilerea kontrolatuko goi-bileretan ez da neurririk hartzean. Eta ez daukagu Parisera edo Genevara joan behar; arazoagaz jaubetuteko: etxean daukagun zaborrontzira begiratutea baino ez daukagu ikusteko zelango presentzia daukien zabor plastikoez gure bizitzan.

Halanda be, ez da esperantzea galdu behar, ze izan lei fenomeno horrek ondorio onak be eukitea. Zergaitik ez pentsau mikroplastikoen presentzia iraunkorrek mutazinoren bat sorrazotea gizakien sistema neuronalean eta gure portaerak aldatutea? Eta hola, oingoan bai; oingoan hobeak urtengo gara hemendik danetik.

ZERTZEAN



EKHI ZULUAGA

Gaia jarrita: "Urtea akabau jaku"

- 1

Bi mile eta hogeta laue atzean itxi ta gero urte barri bet hasi zan klaro pasetan dan lez urtero propositoak botaten hasi ginen pentsau barik, bero bea benetan ez zauen inok hau beteterik espero.
- 2

Urte barrie hasi zan eta askok in gindun ospatu ordutik zenbet gauze in doguz zenbet berba, zenbet tratu urte barrien gure ginduzen bazter guztiek maratu, ta konturatu garenerako urtea akabau jaku.
- 3

Bi mile eta hogeta bosta oso fuerte etorri de gauze gehiegi pasau dire ta danok horrerik begire gatazka honik ez joateko apurke-apurke handire hurrengo urtean gure munduen gauzek kanbiau behar dire.
- 4

Donald Trump heldu da barriro be mundu honen agintera ta bitartean bonbardaketak palestinar lurraldera ultra eskoia hurbiltan dabil inderrak hartuz ganera nire ustetan burruke gogoz urten behar da kalera.
- 5

Papa barrie, loteriena zein Louvreko atrakoa gauze txar asko ta onak bebai dana ezinbestekoa benetan urte hau izin dala goitik behera konpletoa ta ie zelan datorren laster hasten dan hurrengokoa.
- 6

Hurrengo urteak be emoten dau etorriko dala lodi guk borrokatu ezin badogu sinistuten dogun hori hortaz seguru nauelako ni, hortxe doaz gauzetxo bi: Gabonak asko disfrutau eta urte barri on danori.

BEGI TXINDORRA

Igorren erraz ahaztuko ez dan eguna izan zan abenduaren 22a. Administrazioak 90.693 zenbakiaren 48 serie eta hiru dezimo eukazan, 24.150.000 euro guztira; eta 14 milioi, Arratiko Zekorrek txarteletan banatuta. Gazteak izan ziran kalera ospatuten urtetan lehenengoak, asko santomasetako ajeagaz, beste festa baterako prest. Beste batzuk, aukerea izan eta txartelok erosi ez, edo urtero erosten dabezanak eta aurtan ez. Peneagaz, baina inguruan hainbeste poztasun ikusita, irribarreari ezin eutsi. Baten batzuk sorpresea be ordu pare baten ostean. Familiaren deia: "Badaukaguz dezimoak!".

Igorren, eta inguruko herrietan be, jausi zan dirutzea. Zelango poztasuna, inor milioiduna egin ez baina aberastasuna asko banatu dalako. Pensino bajuko adinekoak, atzen urteak erosoago biziko dabezanak. Estu ibili diran familiak, Gabon on batzuk pasau eta hipotekea edo kotxea ordaindu ahal izango dabenak. Etxebizitza lortzeako garai ilun honeetan, independizetea askoz hurbilago daukien gazteak. Eta egongo dira bebai, etxebizitza horreen prezioak igoteko prest egongo diran jaube espekulatuak; edo irabazitakoa aprobetxatuz, espekuletako etxea erosiko dabenak. Ez dot mesedez eskatuko: komunidadea honen parte sentiduten bazara, jokatatu arduraz.





Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

LORAZAINTZA

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com



BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17
Eduardo 647 72 96 24

Arkaitz 677 46 40 91
Golder 666 58 20 06

Pozueta poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com





Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologoa

Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bidaia
T. 94 631 50 39
Idazgaitza Zerbaita: 900
R.P.S. 31/06

ARRATIA/UBIDE

Norbere zaintzarako estrategiak ikastaroa antolatu dau mankomunidadeak

Izena urtailaren 10era arte emon daiteke eta sei saioak hurrengo eguaztenetan egingo dira, 17:30etik 19:00etara Igorreko Kultur Etxean.

Asier Abrisketa

Arratiako Udalen Mankomunitateko Gizarte Ekintza Sailak norbere zaintzea lantzeako ikastaroa antolatu dau 2026 hasikerarako. *Norbere zaintzarako estrategiak* izenpean, sei saioko ikastaroa izango da, urtail eta zezeilean, eguaztenetan egingo dira saioak Igorreko Kultur Etxean, 17:30etik 19:00etara. Saiook urtailaren 14an, 21ean, 28an eta zezeilaren 4an, 11n eta 18an izango dira, hurrengo hurrengo. Izen-emotea urtailaren 10era arte dago zabalik, 94 631 17 17 telefonoan.

Saioetako bakoitzean, norbere burua zaintzeako aspektu bat landuko dabe parte-hartzaileek EDE fundazinoko kideakaz. Lehenengo saioan emozinoen kudeaketa eta honeek komuniketako garrantzia landuko da; bigarrenen norberarentzako pozgarriak diran jarduerak antolatzearen garrantzia izango da langaia eta urtailako



atzen saioan, loa zaintzeako aholkuak emongo dira, loak ongizateagazko zuzeneko harremena dauka-ta. Zezeilean barriz, lehenengo saioan jarduera fisikoaren eta bigarrenen, elikadurearen garrantzia azpimarratuko da, aholkuak emoteaz gainera; atzenengo saioan barriz, norbere egunak eta denporea antolatuteko aholkuak emongo dira.

IGORRE

Palestinaren aldeko alkartasun enkantea egingo da Axularren

Erredakzinoa

Urtailaren 4an, arrastiko 19:00etan, alkartasun hitzordu berezia egingo da Igorreko Axular Herriko Tabernan. Palestinako herriari babesa adierazoteko asmoz, enkante solidarioa antolatu dabe, eta Arratiako zein Euskal Herriko hainbat sortzaile, talde eta eragileren ekarpenak batuko dira bertan.

Ekimenak helburu argia dauka: alkartasuna laguntza bihurtzea, eta horretarako, balio handiko material sorta zabala ipiniko da enkantean. Kirolagaz, kultureagaz eta tokiko produktuekaz lotutakoak izango dira, batzuk bakarrak edo eskuratzeko sano gatzak.

Besteak beste, honako material hau eskuratu ahal izango da: Pelotako Euskal Selekzinoko ka-

misetea, Palestinako Futbol Federazinoko kamisetea, Torontileko lamina eta pegatinak, Arratiako produktuen otzarea, Saioa Larrearen piezea, Garenako txakolin botilak, Arratiko Zekorrek taldearen kamisetea, Asisko Urmene-taren marrazkia, Karlos Aretxabaleta eta Mikel Urkixoren liburuak, Platinelaren materiala, Areatza Musik & Beer-en materiala, BEGIturen materiala, Athletic Clubeko nesken kamisetea, Areatza Bai-nuetxeko zirkuitu termala (lagun birentzako), Ane Han-en diskoak, AEKren Korrikako material lotea, Amaia Aldairen kamisetea, Gorbela Suzieneko materiala eta disko ugari, besteak beste.

Antolatzaileek herritar guztiak konbidau gura dabez parte hartzera, enkantean puja egitera edo, besterik ez bada, bertaratzera.

IGORRE/ZEANURI

Zeanuriko Udalak eta BATZek Goi Mailako Bikain ziurtagiria jaso dabe

Eusko Jaurlaritzek euskerearen kudeaketa eta garapenean emondako aurrerapausuak dirala-ta aitortu dabez Zeanuriko Udala eta BATZ.

Asier Abrisketa

Abenduaren 16an, Gasteizko Europa Jauregian egin zan erakundeek euskerearen gaineko barne-lanketea egiteagaitiko aitormen ekitaldia. Helburua, erakunde publiko eta pribaduek euskerearen kudeaketan eta garapenean emondako aurrerapausuak aitortutea izan zan. Harrobi, Oinarritzko Bikain, Erdi Mailako Bikain eta Goi Mailako Bikain ziurtagiriak emon ebazan Eusko Jaurlaritzek eta atzen saria jaso eben Arratiako erakunde bik, Zeanuriko Udalak eta Batz S. Koop-ek hain zuzen be.

Xaber Ozerinjaregi BATZ kooperatibako presidenteak BEGItun azaldu dauanez, ziurtagiria "egindako lanaren errekonozimentua da eta lan honetan -eguneroko lanean euskerearen erabilerearen ahalbidetzea- aurrera egiteko indarra emoten dau". Izan be, BATZek 2000tik dauka indarrean Euskera Plana eta hau lantzeako, Euskera

Batzordea "urte on eta txarretan" lanean ibili dala defendidu dau. 2017an Erdi Mailako Bikain ziurtagiria lortu eben eta oin, Goi Mailakoa.

Nahia Urrutxua Zeanuriko alkateak be adierazi dau, "ilusino handiz" hartu dabela ziurtagiria: "Poza eta harrotasuna sentiduten dogu baina hau ez da hemen amaituten, bidean jarraitu gura

dogu, hobetuten, euskereagaitik eta euskerearen alde". Alkatearen eretziz, ebaluazinoan izandako emaitza ona, batetik, udaletxearen barne-funtzionamentua dala-ta lortu da; barne-komunikazinoan, plenoak, aktak eta dokumentazinoan euskeraz egiten diralako. Eta bestetik, "herriari begira be, dana euskeraz" egiten dalako.



IGORRE

Indarkeria bikarioaren gaineko dokumental proiektzinoa eta solasaldia hilaren 16an

No estas loca dokumentala proiektu, eta biktima zein profesionalakaz egingo da solasaldia, Irune Costumero tartean.



Maria Bestar zuzendaria.

Asier Abrisketa

Igorreko Lasarte Aretoan indarkeria bikarioa izango da berba-gai abenduaren 16an, barikua, 19:00etatik aurrera. Gizonek, andrei mina egin edo kontrolatuko, seme-alabak erabiltzea da indarkeria bikarioa. Maria

Bestar zinegileak gai hau jorratu dau *No estas loca: La verdad sobre la violencia vicaria* dokumentalean eta berak aurkeztuko dau ikus-entzunezkoa Igorren. Estatu mailan indarkeria bikarioa jasan daben andren istorioen gaineko "ibilbide intimo eta kolektiboa" da dokumentala eta beste testigantza askoren artean, Irune Costumero igorretarrarena dago. Berak zein beste biktima batzuk, profesional batzuek gainera, hartuko dabe parte solasaldian.

Dokumentalak "andren, nera-been eta profesionalen —epaileak, psikologoak, kazetariak, pediatrik— berrogei testigantza baino gehiago biltzean ditu, sistema judizialak umeei sistematikoki huts egiten deustela erakutsiz. Testigantzen bitartez, sistema judizial eta soziala deskribiduten da, beti lagundu eta babesten ez dauana, indarkeria betikotzea ahalbidetuten daben arrakalak azalararazoz. Filma, aldi berean, "laguntza-oihu bat eta esperantzeari egindako kanta bat da, oindino, egiteko asko dagoela gogorazoteko; bai eta biktimen eta honeek lagunduten dabezan personon indarrak eta batasunak, beharrezko aldaketea bultzatuteko gai dirala gogorazoteko be", dino sinopsiak.

ARRATIA/ZEBERIO

Erregeen Kabalgatak, kontzertuak eta umeentzako ekintzak Gabonetako atzen txanpan

Urte barriari ondoetorria emonda, Gabonak urtailaren 6ra arte luzatuko dira gurean. Ekintzetako asko oindino oporretan dagozan umeentzako izango dira.

Asier Abrisketa

Programauta dagozan jardueren artean dagoz puzgarri eta jolasak Arantzazu, Igorre eta Zeberion, film proiektzinoa Areatzan eta izotz pistara urtekerea Diman. Arantzazun jubiladuentzako BINGOA eta herri osoarentzako urtekerea be egingo da, Azpeitiara. Musikea be izango da protagonista garrantzitsua. Holan, Areatzako gaztetxean II. Emoten Zara Nonor Playback Txapelketea, Diman kantaldia adinekoen egoitzetara, Lemoan Stankeik! kontzertua, Zeanurin herriko abesbatzaren eta Usansoloko Orfeoiares kantaldia eta atzenik Igorren, Areatzako Bandaren, Luis Iruarizaga Abesbatzaren eta Arratiako Musika Eskolearen kontzer-

tua egingo da. Atzen urteetan legez, Errege-netako Kabalgatak Areatza, Bedia eta Igorren baino ez dira egingo, urtailaren 5ean, iluntzean. Gainera, Errege-netako bezperan kotilioi berezia antolatu da Arantzazuko Herriko Tabernan, Hippy Jaia.

ARANTZAZU

Urtailak 2, barikua
18:00etan, jubiladuentzako bINGOA. Kultur Gunean.

Urtailak 3, zapatua
09:00etan, urtekerea Azpeitiara, Burdinbidearen Euskal Museoa eta Loiolako Santutegia.

Urtailak 4,domekea
11:00etatik 14:30era, umeentzako puzgarriak frontoian.

Urtailak 5, astelehena
22:00etan, Hippy Jaia kotilioia. Herriko Tabernan.

AREATZA

Urtailak 3, zapatua
20:00etan, II. Emoten Zara Nonor Txapelketea. Laminetxe Gaztetxean.

Urtailak 4, domekea
17:30ean, umeentzako *Nire zirkua* filma. Udaleko Areto Nagusian.

Urtailak 5, astelehena
18:00etan, Errege-netako Kabalgatea. Karpon hasita (eguraldi txarra egin ezker, plazan).

BEDIA

Urtailak 5, astelehena
18:30ean, Errege-netako Kabalga-



tea eta txokolate beroa. Plazan.

DIMA

Urtailak 2, barikua
09:30ean, 4-18 urte bitarte-koentzako urtekerea izotz pistara.

Urtailak 5, astelehena
16:00etan, Dimako adinekoen egoitzetara kantari.

IGORRE

Urtailak 3, zapatua
11:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 19:30era, Gabonetako Haurren Parkea. Aterpean. 19:30ean, Areatzako Bandaren Gabonetako kontzertua, Luis Iruarizaga Abesbatza eta Arratiako Musika Eskolako ikasleakaz.

Lasarte Aretoan.

Urtailak 5, astelehena
18:00etan, Errege Magoen Kabalgatea.

LEMOA

Urtailak 5, astelehena
23:00etan, Stankeik! kontzertua. Karabie Gaztetxean.

ZEANURI

Urtailak 5, astelehena
19:00etan, Zeanuri eta Usansoloko abesbatzak. San Isidro eleizan.

ZEBERIO

Urtailak 2, barikua
11:00etatik 14:00etara, umeentzako puzgarriak eta jolasak. Plazan.

LEMOA

% 7ko igokerea izango dau 2026ko Lemoako aurrekontuak

Segurtasuna eta euskerea indartu eta hainbat proiektu aurreikusita, 5.343.164 euroko aurrekontua onartu dau Lemoako Udalak.

Asier Abrisketa

Abenduaren 10ean, Lemoako Udalak 2026rako Udal Aurrekontuak onartu ebazan, EAren aldeko eta EH Bilduren kontrako botoakaz. Esther Iturrioz alkateak aurten aurreikusita dagozan hainbat proiektu barri azpimarratu ditu BEGITU. Euskeran eta segurtasunean egongo diran igokerez gainera, Kotxeretako eraikineko proiektu fasea, Txiriboketako aparkalekua egitea (85.000 euro), Kamane parkea txukundutea eta BM inguruak eta Pozueta lotuko dauzan oinezkoentzako zubia (100.000 euro) dagoz. Halanda be, EH Bilduren ezezkorearen gainean galde-tuta, Eukeni Bikarregi zinegotziak BEGITURI adierazo deutso, "proposamen gehienak zementuagaz egitekoak" dirala eta EH Bilduk ikusten dauana da, "personon beharizanak -etorkinak, hiruga-

rrren adinekoak, lanbakoak... -ez dirala erantzuten". Txiriboketako aparkalekua egiteko eta oinezkoentzako zubirako partidez gainera, azpimarratutako hainbat partida handi egongo dira Lemoan. Berbarako BideOn berreskuratutako 40.000 euro, segurtasunerako partidea (5.000 eurotik 25.000 eurora), futbol zelaiko argiztapena aldatutako eskatuko dan 85.000 euroko dirulaguntzea, euskerarako partidearen indartzea (32.000 eurotik 43.500 eurora), bardintasun ekintzetarakoa (27.000 eurotik 35.000 eurora) eta eskoletako galdarea aldatutako bigarren faserako eskatu dan 230.000 euro inguruko dirulaguntzea, besteak beste. Kulturaren be inbertiduko da nahikotxo, 58.700 euro, eta Kotxepineko ekintzerako 41.500. Horrezaz gainera, azterketa edo proiektu fasean dagozan lanetarako 1.000 euroko hainbat

partida zabaldu dira, gero dirulaguntzak eskatu ahal izan edo erremanentea erabilteko; berbarako, erabilera anitzeko Kotxeren eraikinerako, pasau dan urtean erosi zan Kamane parkerako edo harrobietan egitea aztertuko dan ferrata biderako. Gizarte arloan, ume eta gazteentzako, hirugarren adinekoentzako eta persona zaurgarriak lagundutako partidak azpimarratu ditu Iturrioz alkateak. Pasau dan urtean diagnostikoa egin ostean, aurten ipiniko da martxan Gazte Plana eta bertan, gazteakaz alkarlanean ekintzak antolatutako 8.000 euroko partidea dago. Horrezaz gainera, Gaztelekurako 13.250 euro dagoz, zerbitzua aurten esleitu behar danez igon daitekeana; Ludotekarako barritz, 8.300 euro dagoz. Hirugarren adinekoen ekintzetarako gehiago erabiliko da, 15.000 euro. Zaurgarritasun egoeran dagozanei



Esther Iturrioz alkatea.

jagokonez, umeek kirola egin dagien 5.000 euro eta arreta goiztiarra, psikologoak edo logopedak behar dabezanentzako, beste 5.000 euro. Merkatariek be izango ditue laguntzak, 5.000 euro Lemoa Ureztatzen alkatearentzako eta beste 5.000 euro, bonu kanpainarako. EH Bilduren ezezkoa EH Bilduko zinegotziek ezezkoa emon eutseen aurrekontuei eta Eukeni Bikarregik Udal Gobernuaren jarrerara, "prozesu aldetik ondo" balorau dauan arren, plangintza faltea salatu dau BEGITU. Izan be, nahiz eta orokorrean

partidakaz ados egon, adierazo dau: "Esan dabe egingo dabela, baina atzean ez dago plangintza bat". Berbarako, euskerearen erabilereak izandako atzerapausuaren gainean, defendidu dau: "Gauzak gatz egongo dira baina diruaren atzetik, esfortzu bat egin behar da". Gainera, "zementuagaz egiteko" proiektuak baino, lemoaztarrek "personei begirako" proiektuak behar dabezala dino Bikarregik. Kanpoztarrak, lanbakoak eta hirugarren adinekoak aitatu ditu eta honeei laguntzeko, lehenengo diagnostikoak egin eta gero, "atez ateko zerbitzuak" eskatu ditu.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Jon Durana eta Luis Carlos Abeal sarituak Begitu-lagun kanpainan

Erredakzinoa

Garena jatetxeko persona biren-tzako Gurea menua Bediako Luis Carlos Abealek irabazi dau eta Zuhaitz Etxeak-en lagun biren-tzako gaua eta gosaria Areatzako Jon Duranak. Begitu-lagun barriak egiteko kanpaina martxan euki dau BEGITUk, hori dala-ta abenduaren 20ra arte Begitu-lagun egin ziranen edo Begitu-lagun izan eta lagun bat ekarri ebenen artean goian aitaturako sari potolo biak zozketatu ditu.

BEGITUREN asmoa eten barik hobetzea da eta bere baliabide ekonomikoak indartuteko, proiektua diruz lagunduko daben lagunak behar ditu, BEGITU bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eusteko. Proiektua aurrera eroan ahal izateko diru sarrerak handitu behar ditu Arratia, Ubide eta Zeberio aldirikariak. Hiru baino ez dira izan zozketan sartu diranak eta kanpaineak ez dau arrakastarik izan. Halanda be 2026an beste sari potolo batzuk zozketatuko ditu BEGITUk. Adi hurrengo zenbakiei.



ZEANURI

2.142.024 euroko aurrekontua onartu dau Zeanuriko Udalak

Aurreikusitako proiektu nagusia eskolako "patio inklusiboa" da, 150.000 euroko partideagaz.

Asier Abrisketa

Abenduaren 22ko ez-ohiko plenoan Udalak 2.142.024 euroko aurrekontua onartu eban 2026rako, EAJren kontrako botoakaz. Pasau dan urtekoa (2.434.807,79€) baino txikiagoa da Udalak kudeatuko dauan aurrekontua, besteak beste, 2025ean frontoiko obrea egin dalako eta 2026an ez dalako pelikulen grabazioetatik hainbesteko diru-sarrerarik aurreikusi. EAJk kontra egin eban, besteak beste, aurrekontuak parte-hartzaileak izan ez dirala eta alegazioak prestatuteko denpora gitxi emon jakiera argudiatuta. Horrez gainera, EAJko Eider Ajuriagerrak gehitu eban, aurrekontuak ez dirala gastu errealetan oinarritu. EH Bilduko Nahia Urrutuak bariz, akusazio horreek ezeztatu ebazan, nahiz eta onartu, auzo batzarrak zirriborroa aurkeztu ostean egin zirala: "Gure asmoa da auzotarrak entzutea eta jaso doguzan iradokizunak urtean zehar gauzatuzea".

EH Bilduren Udal Gobernuak egindako proposamen nagusien artean dago eskolako patioaren eraberritzea, aurreko urtean egindako prozesu parte-hartzailean proposatutako proiektua aurrera eroateko. Patioa naturalizatu gura da, eta besteak beste, graden zati bat kenduta txirristak ipintea. Kultur Etxeko areto nagusian lanak egin gura dira be, hau zaharbarritu eta ikuspegia oztopatuten daben zutabeakaz zer egin ikusteko. Konsultategian be egingo dira lanak, komunitateko bat kenduta



biltegitxo bat egin eta "intimidadea irabazteko", ateak aldatuta. Herribideei jagokonez, Ziarsoloko bideak konponduko dira eta "heltzean bagara", Oruekoak be. Skate pista bat egiteko gazteen proposamena be batu da aurrekontuan, proiektuagaz hasteko. Gainera, gimnasioan aurten ipiniko dira makinak, alokairu bitartez eta proposamena alokairurako 5.000 eurokoa bazan be, EAJren "benetako inbersino bat egiteko" alegazioa onartu eban EH Bilduk; 15.000 euro erabiliko dira atzenean. Zirriborroari alegazio ugari egin eutsazan EAJk baina gimnasioko makinena kenduta, ez ziran bilkuran onartu. Jeltzaleen eskaera nagusietakoa izan zan, frontoiko frontisa eraberritutekoa. Horretarako, hainbat partidatetik dirua bideratuteko eskaerea egin eben (urgingintza eta konponketetatik dirua kenduz). Halanda be, nahiz eta EAJk "preminazkotzat" ikusi, Udal Gobernutik esan eben ez dala ikusten lan horreek aurten egitea eta frontoian beharren dabilen Castellanos enpresea, ez dala lan hori egiteko gai. Beste alde batetik, saneamenturako Udal Gobernuak ipinitako 100.000 euroak EAJri gitxi

iruditu jakozan, (2024an 164.000 euroko gastua aurreikusi zan) eta Ajuriagerrak adierazo eban: "Pentsetan dot errazoi nahiko dala hau, aurrekontu osoa bertan-behera ixteko". EH Bilduk defendidu eban, Partzuer-goak malgutasuna onartu dauala eta gainontzeko dirua, datorren urtean ipini daitekeela; "lanek martxa bardi-na jarraituko dabe", defendidu eban Urrutuak.

Altzustako bakegunea

EH Bilduk proposatutako beste ekimen garrantzitsu bat Altzustako San Migeleko bakegunea izan da. 45.000 euroko partideagaz, Altzustako ermitako landan, besteak beste, hileta zibilak egiteko eremu bat egokitu gura da, auzotarrentzako aisi erabilerarako be erabilgarri egongo dana. Partida horregaz, ermitako teilatua be konponduko dalarik. Halanda be, ermitea eta landearen jaubetzea Altzustako kofradiarena da eta kofradiei aurreproiektua aurkeztu jakien arren, jaubetzea Udalera pasau beharko zan proiektuagaz aurrera egin aurretik. EAJk proiektuaren kontra egin eban eta diru hori, saneamentu lanetarako erabiltea eskatu eban.

2026

EUSKADIKO GAZTEAK KANKIDETZAN

IZEN-EMATEA:

ABENDUAREN 24TIK OTSAILAREN 23RA ARTE

JOSE MARTIN BUSTINZA "TUBI"

Bere 72 txapel eta ehundaka lagunen artean egin jakon omenaldia "Tubi"-ri

Herri kirolak, jantzak, bertsoak, musikea eta opari ugari opatu jakozan kirolari dimoztarrari egindako ekitaldi hunkigarrian.

Asier Abrisketa

Abenduaren 13an, Dimako frontoia bete-beteta egon zan Jose Martin Bustinza "Tubi"-ri omenaldia egitera hurbildu ziran herri kirolari, familia eta lagunakaz. 2002an hasi zan "Tubi" herri kirolletan eta ordutik 72 txapel irabazi ditu modalidade desbardinetan, batez be, lastoa altxau eta botaten. Dimakoa historiara pasau dan kirolaria dala erakutsi eban omenaldiak, hunkigarria bezain zirraragarria izan zan. *begitu.eus* webgunean dago ikusgai ekitaldiaren bideo-kronikea.

Arantzarateko jantzariek zabaldu eben omenaldia eta gero, tar-tekatuten joan ziran bere lagun izandako herri kirolari beteranoen zein gaur plazetan dabizen kirolarien erakustaldiak, lagun, familia eta kirol munduko erakundeek Tubiri eskainitako oroigarriakaz. Lasto botate eta jasotea, azkolaria, trontzalariak, harri-jasotzailak, ingudelariak, txingalariak...

Tubi, gaur plazetan dagozan andra zein gizonentzako eredu izan dala erakutsi eban omenaldiak.

Kirola bakarrik ez, musika eta bertsoakaz be egin eban burrunba Dimako frontoia. Sorpresa handia izan zan, Jokaldi talde mitikoaren oholtzara bueltea. Izan be, gazte denporatan Tubi Jokaldigaz ibiltan zan, ekipoagaz lagunduten. Bertso ugari be entzun ziran, bere lagunek Tubiri eskainita; Kepa Intxausti, Jon Loiola, Eñaut Intxaurraga... Eta sorpresea Jon Maia bera oholtzan agertu zanean. Ekitaldiaren momentu hunkigarrienetarikoa amaierakoa izan zan, Tubik mikroa eta Juan txu

Urkiagak gitarrea hartuta, frontoi osoak *Xalbadorren heriotzean* kantau ebanean. Askoren memorian geratuko dan eguna izan zan abenduaren 13koa, eta batez be Tubirenean, kirol ibilbide oparo bat baino, bidean egindako lagun piloa eta honeei emondako laguntasuna agerian itxi eban-ta arrasti harek.

Tubi nola neur liteke lortu duzun oihartzuna ta Tubi nola neurtzen da jaso duzun erantzuna nola neurtzen da bihotz bat nola neurtu maitasuna nola neurtzen da persona eta zuk lortu duzuna nola neurtzen da kirola ez denpora ez eguna nahiz izugarria izan atzeko txapel albuma txapeletan ez da neurtzen zuk duzun handitasuna txapelik handiena da zure aurrean daukazuna.

Euskal Herriak euskera eta Gernikak arbola arrainak ura behar du eta bihotzak odola bertsoak zeinek entzuna edonoiz ta edonola herriak errespetua ez izatea ez axola loretxoak eguzkia barraskiloak oskola herri kirolak bi gauza behar baditu ta nola batetik herria bera eta bestetik kirola uste dut zure pareko lokaririk ez dagola.

Jon Maia bertsolariak Tubiri egindako bertsoak.





baserrigintza

*Eraiki daigun alkarregaz
2026 eder bat*

Igorreko Industrialdea E2 · 48140 · IGORRE | 94 673 68 29 · 652 774 052
sunaeraiketak@gmail.com | www.baserrigintza.com
@baserrigintza

HERRI KIROLAK

Patricia Martinek jantzi eban Bizkaiko andren harri-jasote txapela Zeanurin

Asier Abrisketa

Abenduaren 13an, eguerdiz, Bizkaiko Emakumezkoen Harrija-sotze Txapelketea jokatu zan Zea-nuriko frontoian. Kategoria abso-lutua eta 60 kiloz azpikoa egon ziran jokoan; lehenengoa Patricia Martin Bilbon bizi dan galiziarrek irabazi eban eta bigarrena, Zihara Zabala gernikarrak. Absoltuan 75 kg-ko zilindro zaharra, 62,5 kg-ko kubikoa eta 62,5 kg-ko bolea altxau behar ebezan, bakotxagaz minutu bitan, eta Martinek guzti-ra 4.262,5 kg altxetea lortu eban. 60 kilotik azpiko kategorian, harri

bardinak baina hurrengo z hurren-go 62,5 kg, 50 kg eta 50 kg-koak ziran; Zabalak 3.375 kg altxau ebazan. Kategoria absolutuan azpitxapel-duna Ane Atxutegi usansoloztarra izan zan, guztira 3.812,5 kilogra-mo altxauta eta hirugarrena, Amaia Mendinueta gernikarra 1.987,5 kilogramoko markeagaz. 60 kilo-gramoz azpiko mailan barriz, lehia estuagoa egon zan bigarren eta hirugarren postuak ebazterakoan. Izan be, Aida Ugalde zornotzarrak 2.700 kilogramoko markea egin eban eta Leire Astoreka gernika-rrak 2.687,5 kilogramokoa.



ZIKLO-KROSA

Manu Quintanilla barriro Euskadiko txapeldun

Abenduaren 28an Seguran jokatu zan Euskadiko Txapelketea eta Igorrekoak irabazi eban Master 50/60 kategorian.

Asier Abrisketa

Pasau dan urtean Euskadiko Txa-pelketea irabazi ostein, Manu Quintanilla txirrindulari igorrezta-rrak oingo denporaldirako helburu moduan eukan barriro be txapela jantzea. Abenduaren 28an jokatu zan Euskadiko Txapelketea, Segu-rako V. Ziklo-kros Sarian; Quintani-llak ezetuten ez eban zirkuitua zan baina entzunda eukan arriskutsua dala. Igorrekoak BEGITU azaldu dauanez, "dana emon barik baina gogor" urten zan, ez zalako lehe-nengo sartu gura lupeztutako le-hen landan; laugarren kokatu zan. Aurrerago, 300 metroko asfal-tautako aldapa aprobetxau eban lehenengo ipini eta postua man-teniduaz, lasterketea irabazita. Sei birak 44 minutu eta 22 se-gundotan egin ebazan Quintani-llak. Atzetik, hurrengo z hurrengo

28 eta 38 segundoko aldeagaz, Ivan Lopez eta Carlos de Miguel ailegau ziran helmugara. Oin, Igo-rrekoak Espainiako Txapelketea prestatuten ipiniko dauz indar guztiak, denporaldiko atzena. Hau urtailaren 10ean jokatuko da, Tarancon-en (Cuenca). Ho-netarako prestatuteko, urtailaren 4an IV. Urdiaingo Ziklo-krosa be korriduko dau, Nafarroan.



PELOTEA

Ziarrusta II eta Burgete Euskal Herriko OneWall txapeldunak

Mikel Beldarrain, Mikel Aurrekoetxea eta Amaia Aldaik be hartu eben parte txapelketan, finalaurrekoetan kanporatu ebezan hirurak.

Asier Abrisketa

Abenduaren 14an Durangoko Ezkurdi pelotalekuan jokatu zan Euskal Herriko OneWall Txapelke-tea, andrazko zein gizonezko ka-tegorietan, danak binaka. Tartean, bost arratiarrek hartu eben parte txapelketan eta bikote irabazlea dimoztarra izan zan, Lur Ziarrus-ta eta Jokin Burgetek osotutakoa hain zuzen be. Munitibarreko Kepa Albizu eta Unai Arrizabalaga bikotearen kontra jokatu eben Di-makoek finala eta set biak 15-13 irabazita lortu eben Euskal He-rriko txapela jantzea. Andrazkoen txapeldunak barriz Naroa Agirre eta Miren Larrarte izan ziran, Laia Salsamendi eta Ane Mendibururi 15-13 eta 15-10 irabazita. Arteako Mikel Beldarrainek Lier Arrien zornotzarragaz jokatu eban



eta finalaurrekoetan dimozta-rran kontra 25-24 galdu eben. Lemoako Mikel Aurrekotxeak barriz, Aner Iglesias zaratamo-a-rragaz jokatu eban eta honeek be finalaurrekoetan egin eben kale, Munitibarreko bikotearen

kontra 25-23 galduta. Amaia Al-dai dimoztarrak ostera Oñatiko Madalen Etxegaraigaz osotu eban bikotea baina finalaurrekoan ezin izan ebezan Laia Salsamendi eta Ane Mendiburu garaitu, 15-9 gal-du ebezan set biak.

TXIRRINDULARITZEA

AZE eta txirrindulari gazte bi saritu dabez Bizkaiko Txirrindularitzaren Galan

Arratiako Ziklista Elkartea, Peio Erdoiza lemoaztarra eta Oihan Rekakoetxea zeberioztarra izan dira sarituak.

Asier Abrisketa

Abenduaren 18an Miribillan ospatu zan 2025eko Bizkaiko Txirrindularitzaren Gala. Bertan Arratiako Ziklista Elkartea saritu da "Antolatzaile Handi" sariagaz. Horrezaz gainera, Lemoako Txi-rrindulari Eskolako Peio Erdoiza infanbila be saritu dau Bizkaiko Txirrindularitza Federakundeak. Izan be, Erdoizak infantil kate-goriako lehen urtean, Udaberri Kopa eta Ausarten Kopa irabaz-teaz gainera, errepideko Bizkaiko Txapelduna be izan da. Zeberioko Oihan Rekakoetxea barriz, AZEn infantileko lehen urtean egonda hirugarren egin eban Ausarten Kopan eta gero, Galdakaoko es-kolara joanda, Txiki Kopako biga-rrena eta Bizkaiko Kopako hiruga-rrena izan da. 2025a ez da izan Arratiako Ziklista Elkartea saritua izan dan lehenengo urtea. 2022an eta 2024an be izan zan saritua, Zi-darrezko Antolatzaileak sariagaz,



urtean lasterketa bat baino ge-hiago antolatzeagaitik. Aurtengo saria Antolatzaile Handia izan da eta Leire Aurrekoetxea AZEko presidentea eskertuta agertu da federakundearen aitamena jaso-teagaitik: "Emoten dau nahiz eta herri txiki bateko alkartea izan,

itzelezko ahalmena daukagula maila guztietako lasterketak au-rerra aterateko". Aurrekoetxeak BEGITU azaldu dau, "dedikazino askoko ordu partidea sartu" os-tean, holango aitormenek "indar asko emoten dabela aurrera ja-raituteko".

PELOTEA

Izen handiko pelotariak Igorren

Amaia Aldai, Olatz Arrizabalaga, Eneko Artaraz eta Izkander Torralba gazteez gainera
Mikel Goñi, Titin III, Oinatz Bengoetxea eta Imanol Agirre beteranoak egongo dira Igorren.



Titin III.

Asier Abrisketa

Igorreko Eskupilota Elkartek eta Igorreko Udalak antolatuta, aurten be egongo da urte hasikerako pe-
lota jaialdixoa Igorreko frontoian. Urtilaren 9an, barikua, jokatu-
ko dira partiduak 19:00etatik aurrera eta pelotari beterano zein gazteen
erakustaldia izango da. Lehenengo partidua mistoa izango da; Olatz

Arrizabalaga gernikarra eta Eneko Artaraz zeanuriztarra, Amaia Aldai dimoztarraren eta Imanol Agirre arteaztar beteranoaren kontra. Bi-
garrenean barriz, Izkander Torralba gazte igorreztarra Mikel Goñigaz arituko da, izen handiko beste pelotari biren kontra: Titin III. eta Oinatz Bengoetxea.
Pasau dan urtean, frontoian giro itzela sortu zan Olga Ortuza-

rreren omenez ospatutako pelota jaialdian eta aurten be, Igorreko Eskupilota Elkartek izen handiko pelotariak ekarteko ahalegina egin dau. Pasau dan urtean Mikel Goñi eta Oinatz Bengoetxea egon ziran eta aurtengoan, Augusto Ibañez Titin III.-ak be hartuko dau parte, lau egun beranduago 57 urte beteko dauzanean. Ho-
neekaz txapelak pilatuten dabilen Torralba egongo da, jokoari gaz-
tetasun apur bat emoteko. Baina aurretik, Igorreko frontoia ondo ezetuten dauan Imanol Agirrek be sentiduko dau etxekoen be-
rotasuna. Alboan izango dauzan, Arrizabalaga eta Aldai profesio-
nalek eta Artaraz promesak berotuko dabe giroa lehenengo partiduari erritmoa ipiniaz.
Sarrerak bost eurotan erosi dai-
tekez daborduko, Igorreko Kultur Etxean zein Kiroldegian. Gaine-
ra, partiduak doban izango dira hamazortzi urtez azpikoentzako. Frontoian txosnea be egongo da.

FUTBOLA

Atsedenenaren ostean barriro partiduak

Erredakzinoa

Abenduko atzen astegoienean atsedena izan ostean, urtaileko lehen zapatuan jokatu-
ko dabez urteko lehen partiduak Arratiako taldeek.
Andrazkoen Arratia A taldeak abenduaren 21ean jokatu eban To-
losa taldearen kontra eta astegoi-
en bitan atsedenal-
dia izango dabe. 12 jardunaldiren ostean 26 puntu ditu Arratia Ak eta bigarren postuan

dago liderra dan Athletic C talde-
gaz bardinduta. Datorren partidua hilaren 10-11ko astegoienean joka-
tuko dau Arratia Ak etxetik kanpo Oiartzun taldearen kontra.
Andazkoen Arratia B taldeak datorren partidua etxetik kanpo jokatu-
ko dau lider dan Indartsu taldearen kontra hilaren 3an, za-
patua, 18:00etan. 11 jardunaldiren ostean 23 puntu ditu Arratia Bk eta bigarren dago sailkapenean, igoera
promozinorako postuan.

Gizonezkoen Arratia A taldeak datorren partidua Urbietan jokatu-
ko dau Ugeraga A taldearen kontra hilaren 3an, zapatua, 18:15ean. 14 jardunaldiren ostean 29 puntu ditu Arratia Ak eta hirugarren postuan dago, igoera postuetan.
Gizonezkoen Arratia B taldeak datorren partidua etxetik kanpo jokatu-
ko dau Ermua A taldearen kontra hilaren 3an, zapatua, 16:30ean. 14 jardunaldiren ostean 11 puntu ditu Arratia Bk eta ha-
malaugarren postuan dago.
Lemoako Harrobik datorren par-
tidua etxetik kanpo jokatu-
ko dau Etxebarri A taldearen kontra hila-
ren 3an, zapatua, 18:00etan. 14 jardunaldiren ostean 28 puntu ditu Lemoako Harrobik eta laugarren postuan dago.

PELOTEA

Aldaik ezin izan eban lau t'erdiko txapela jantzi

Asier Abrisketa

Emakume Master Cup zirkuituko Master Laboral Kutxa 4 1/2ko Txapelketa Nagusiko finalean Amaia Aldai eta Enara Gamin-
deren arteko lehia estua espero zan. Halanda be, Laukizekoa bere momentu onenean heldu zan Gernikako Santanape pelotaleku-
ra urte berean binakakoa, Nazi-
noen Liga -bakarka zein binaka-, Plazandreak, Udako Martersa eta Hiru Hiriburuak torneoak iraba-
zi ostean. Holan, lau t'erdikoan be, erakustaldia emonda jantzi eban txapela 22-10 irabazita. Di-
makoak partidua osteko adieraz-
penetan onartu eban, Gamindek "atzera eta aurrera" izan eba-
la partidua osoan, baina egindakoa-
gaz harro agertu zan BEGITU-
n: "Partidutik pozik urten nintzan; daukadan sensazioa da ondo jokatu nebala baina Enara gehia-
go izan zala".
Hasikeratik nagusitu zan Gam-
minde, 0-4ko tartea zabalduta. Sakez, ezkerparetara aterata min handia egin eban eta Aldaik ezin izan eban bere joko-
a egin. Holan, ia hutsik egin barik, etenbarik ibili zan tartea handituten: 3-8, 4-15, 10-18... Dimoztarrak ez eban amorerik emon eta tantu ederrak lehiatu baziran be, atzenean 22ra heldu zan Laukizekoa, denporaldi ezin hobe bat zarratu eta faltau

jakon txapel bakar-
ra jantzia-
z. Hau Aldaik jarraian jokatu-
tako bosga-
rren lau t'erdiko finala izan da eta horreetatik hiru irabazi ditu. Finalistea izanda datorren urtean be jarraian egingo dau saltu txapelketako atzen fasera.
Binakakoan bitik bi irabazi
Lau t'erdikoa amaitu eta jarraian, Emakume Master Cup zirkuituko Eskuz Binakako Txapelketea hasi eban Amaia Aldaik abenduaren 26an. Miriam Arrillaga da bere bikote titularra baina ezin izan ditu lehenengo partidua biak joka-
tu, halanda be, lehenengoan Irati Betegigaz eta bigarre-
nean Laia Salsamendigaz lortu ditu txapelketako lehen puntu biak. Lehe-
nengoan, abenduaren 26an Etxe-
barrin, 22-18 nagusitu ziran Alize Sagardui eta Nora Mendizabalen kontra. Bigarre-
nean, abenduaren 28an Sopelan, 22-10 irabazi eben Aizane Ibarrola eta Itxaso Erasunen kontra.

"Pozik nago egin dodan txapelketeagaz, batez be urte txar batetik natorrelako eta finalean egotea sari bat zan"



Gure irakastxoak
Euskalduna
kalidadezkoa
herrikoa

JB Eguzkiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Dima

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Zeberio

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 428 78 15 Artea

Arratia BHI
Tel.: 94 428 79 34 Igorre

Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Areatza

I. Zubizarreta HLHI
Tel.: 94 673 60 22 Igorre

Haur Hezwuntza

Lehen Hezwuntza

Dorrigorrezko Bigarren Hezwuntza

Datxilergoa

Hezwuntza Zinloa

2 urtekin 18ra

KONTZERTUA

Areatzako Banda, Luis Iruarizaga Abesbatza eta Musika Eskolea batera Gabonetan Igorren

Urtailaren 3an, bandeak, koruak eta eskolako ikasleek kontzertu bateratua eskainiko dabe Lasarte Aretoan.

Asier Abrisketa

Aritz Labrador Odriozola Areatzako Bandako zuzendariak dinoan moduan, "Gabon jaiek ondare musikal oso aberatsa" daukie. Holan izanda, ohikoak izaten dira Gabon sasoiko banda eta koruen kontzertuak eta urteko lehengo egunetarako, bi dagoz programauta gurean. Erregenetako bezperan Zeanuri eta Usansoloko abesbatzek San Isidro eleizan eskainiko dabe kantaldia, 19:00etan. Baina aurretik, Areatzako Bandak, Luis Iruarizaga Abesbatzak eta Arratiako Musika Eskolako ikas-

leek kontzertua eskainiko dabe, urtailaren 3an Igorreko Lasarte Aretoan, 19:30etik aurrera. Aritz Labradorrek BEGITU ar- rreratu dauanez, "apurtxo bat danetarik" joko dabe Igorreko emonaldian, baina kontzertuaren bigarren zatia, Gabonei eskaini- takoa izango da. Izan be, pieza klasiko eta famaduez gainera, hain ezagunak ez diran pieza "eder" asko dagoz. "Betikoa jotea baino, ondarea berreskuratuten" saia- tuko dira kontzertuan, musikari gazte, heldu eta adinekoen instru- mentu zein ahotsakaz. Halanda be, zuzendariak argitu dau ez di- rala faltauko pieza klasikoak be ez.



ZINEA

Umeentzako zinea Areatzan: Nire zirkua

Asier Abrisketa

Areatzako Udalak antolatutako Gabonetako egitarauaren bar- nean, urtailaren 4an umeen- tzako film proiektzinoa egingo da, 17:30ean udaletxean. Zirkuko familia bateko ume baten bizi- penak kontetan dituan film ka- nadiarra aukeratu da. Jatorrizko izenez *Mon cirque à moi* (Miryam Bouchard, 2020) deituta, euske- raz proiektauko da *Nire zirkua* izenpean. "Zirkuko familia baten jaioa, 12 urteko Laurak bere bizitza gaztearen zati handi bat biran emon dau, Bill aita bakar eta pailazo profesionalagaz. Baina, ezkutuan, bizitza tradizionalago



bat amesten dau. Bere ahalmen akademikoa aitortuten deusan irakasle barriari esker, Laurak bere ametsa betetea lortuko dau: eskola pribadu batera joa- tea... Bill espiritu libreak onartu ahal izango dau 'bere neska txikerra' beste ezpal batekoa dala?", dino sinopsiak.

KONTZERTUAK

Oi! eta punk-rock doinuek barriro astinduko dabe Kiñu Gaztetxea

Urtailaren 17an izango da III. Urte Barri Oi musika jaialdia Igorreko gaztetxean, eta sarrerren % 75 salduta dagoz daborduko.

Asier Abrisketa

Pasau dan urtean sarrera guztiak salduta Igorreko Kiñu Gaztetxean ospatu zan edizino arraskatatsua- ren ostean, Urte Barri Oi jaialdiak barriro estreinauko dau gurean 2026ko denporaldi musikala. Urtailaren 17an izango da jaial- dia Kiñun eta aurten be, punta- puntako oi! eta punk-rock taldeak konbidau dabez antolatzaileek. Kaos Urbano, Fitoskins, Attürri, No Limits, MadSkins, Nekktar eta Aurrez Aurre taldeak igongo dira oholtzara eta kontzertuen ostean, DJ ChicasBeat-en musikeagaz jarraituko dau festak. Geratuten diran sarrerak Igorreko Axular Herriko Tabernan dagoz salgai, 15 eurotan. Kiñu Gaztetxeko ateak 17:00etan zabalduko dira eta taldeen ordutegirik aurreratuko ez bada be, jaia gaueko ordu txikietara arte luzatuko da. Kar- telburua Kaos Urbano talde madrildarra da; 1996tik dago taldea martxan eta estadu mail- an, punk-oi talde entzutetsue- netarikoa da. Beste talde guztiak

barriz, euskal herritarrak dira. Barritasun modura FitoSkins talde elorrioztarrak akustikotik banda formatura egin dau sal- tu eta euren *Umiltasuna* diskoa aurkeztuteko bigarren kontzer- tua izango da Igorrekoa. Horre- zaz gainera, Algortatik MadSkins, Durangaldetik Nekktar, Iruñetik Attürri, Goieritik Aurrez Aurre, Bergaratik No Limits eta Arrasa- te eta Bogotatik DJ ChicasBeat egingo dira.

Laugarren edizinoa kolokan
Atzen urteetan Kiñu Gaztetxea

arriskuan egon da eta holan se- giduten dau, epaiketaz epaiketa. Atzenengo epaiketea 2025eko urri lehenengoaren 15ean izan zan baina abogaduek hau atzera- tutea lortu eben. Hileon, urtailak 27, egingo da barriro Kiñu Gaz- tetxearen eta Sabadell Bankua- ren arteko epaiketea Durangoko epaitegietan eta epaileak, gazte- txearen hustea aginduteko auke- rea mahaigainean dago. Beraz, arriskuan dagoz Kiñun aurten egingo diran ekintza guztiak, bai eta datorren urteko Urte Barri Oi jaialdia.



ERAKUSKETEAK

Bizkaikoa, peto-petoa erakusketea ikusgai Igorren

Bizkaiko Turismo Sailak bultzatutako erakusketea urtailaren 7ra arte egongo da ikusgai Elexalde kalean.

Asier Abrisketa

Abenduaren 19an, Olatz Urkiza Igorreko alkateak eta Leire Saez Bizkaiko Foru Aldundiko Turismo zuzendariak *Bizkaikoa, peto-petoa* erakusketa ibiltaria aurkeztu eben Igorren. Bizkaiko ondare kultural, natural, arkitektoniko eta gastronomikoa buztartuten dauz erakusketeak eta Elexalde kalean, Lasarte parkearen parean, dago ikusgai urtailaren 7ra arte. Erakus- ketea Tomas Ondarra eta Jon Uriartek landutako *De Bizkaia de toda la vida* liburuan dago oinarri- tuta. Ekitalditxoan Saezek liburua oparitu eutsan Urkizari: "Proiektu honek gogorazarazoten deusku zein

dan gure historia, nondik gatozen eta zer garen, eta asko gustau jaku bizkaitar guztiori". Erakusketea osotuten daben panelek Bizkaiko toki natural, historiko eta arkitektonikoak, ka- rolina eta kalimotxoa moduko ondare gastronomikoak, Agate Deuna edo Kaxarranka jantza mo- duko ondare inmateriala erakus- ten dabez, besteak beste. Turis- mo zuzendariak adierazo eban, "normalean sailetik kanpoko bisitarientzako turismoa egiten" dala baina hau, "Igorre eta ingu- ruko herrietako auzotarrentzako" erakusketea dala. Urkizak bat egin eban, "gure herria zer dan" ondo erakusten dau ala esanez: "Nik

danei egiten deusiet etorteko konbitea, irakurteko denporatxoa emon eta informazinoa barnera- tuten, bakotxaren bizipenak go- goratuteko".

Arratiako ondarea arriskuan
Tomas Ondarra eta Jon Uriartek aukeratutako ondare bizkaitarra- ren artean, Gorbeiaiko kurutzea eta Otzarretako pagadia dagoz erakusketan. Igorreko alkateak azpimarratu eban, "Gorbeia- gaz lotura handia" dagoala Arratian eta kurutzea erakusketearen parte izatea "ohore bat" dala. Horrezaz gainera, Otzarretako pagadian "arazo txikia" dagoala onartu eban, "masifikazinoa kontrolau" egin be- har dala eta zer egin ikusteko "la- nean" dabizala adierazo eban.





Juanjo Respaldiza

Etxebarriazarraga txapeldun barria Bizkaian

Nok irabaziko dau aurtengoa ba? Finalaren aurretiko egunetan batek baino gehiagok egin eustan preguntea. Final egunean berean be bai: Gaur nok eroango jok txapela? Eta erantzuna danetan antzekoa: "Eguna harrapetan dauanak, horrexek eroango dau". Finalaurreko onak eginda etozan hiru-lau faboritoenak, baina finala saio bat da, bakarra, eta momentu erre-pikaezin horretan saioari ondo heltzeako zoria daukana asko hurreratzen da txapelera.

Finalaurrekoetatik ekarzan indarra eta konfiantzea baliatu ebazan Aitor Etxebarriazarragak bertsoz bertso sendo agertzeko eta momentu batzutan aparteko distiraz gora egiteko. Puntuari erantzunez botatakoak leherketa ederra izan ziran Casillan. Bakarka be, atrebidu egin behar da gaurko bertsolaritzan bederatziko txikian egiten!

Finala, osotasunean, kalidade handikoa izan zan hasikeratik amaierara. Inok behera egin barik, behin baino gehiagotan egin eban saioak gora. Puntuazinoari erreparetea baino ez dago: buruz burukoaren aurretik 34,5 puntuko aldea dago lehenengotik zortzigarrenera. Hamabost bertso kantau ostean, zazpi epailek emoneko puntuen batuketan bitarte benetan estua da zortzi finalisten artekoa.

Behin buruz burukoaren apoteosira helduta, Onintza Enbeita txapelari laztan egitera heldu zan. Saio guztian legez, bere lekua bape galdu barik egon zan azken txanpa horretan muxikarra. Puntu erdik ebatzi dau Bizkaiko bertsolarien txapelaren jaubetzea. Zer da puntu erdi?

Arratiarrak antolakuntzan

Jente askoren laguntasuna behar izaten dau finala lango ekitaldi handi batek, eta beharrian horrerri erantzunez Arratiako Bertso Eskolan dabilen ikasle moltso handia izan zan Bilboko La Casillan hainbat zereginetan laguntzaile. Igor Menika arantzazuarra gai-jartzaile taldean ibili da txapelketearen ibilbide guztian eta saioaren aurkezle agertu zan oholtzan: hasikerako sarrerea eta sari banaketa ekitaldia izan ziran bere esku. Eta Iradi Barrenetxea Arteako bertsolari gazteak sari banaketan parte hartu eban Bizkaiko beste Bertso Eskola batzuetako kideakaz batera sariak bertsolariei emonaz.

ZINEKLUBA

West Beirut filma proiektauko da urtaileko Igorreko Zineklubean

Hilaren 14an, 20:00etan egingo da proiektzinoa eta solasalditxoa Lasarte Aretoan.

Asier Abrisketa

Igorreko Zineklubeko urtaileko saioa hilaren 14an egingo da, betiko lez, 20:00etan Lasarte Aretoan. Oingoan aukeratutako pelikulea Ziad Doueiri zuzendari libanoarraren 1998ko *West Beirut* da. Gatazka politikoa eta gerrea, gatzetasuna eta maitasuna buztartuten dituan film honek kritika profesional oso onak izan ebazan eta 1998an, Valladolideko Gatzetasun Saria eta Torontoko Jaialdiko Fi-

PRESCI saria jaso ebazan.

Bertan, Beirut mendebaldeko gazte musulman biren istorioa kontetan da, Tarek eta Omar. Libanoko guda zibilean zehar dago girotuta, 1975etik aurrera. Hasikeran abentura lez hartzean daben gatazkea gitxika-gitxika tragedia nazional bihurtuten da. Bitartean, Tarek eta Omar filmak grabetan ibiliko dira eta biak ezetuko dabe maitasuna, May neska kristauataz maiteminduko diralarik.



DUNBA

Euskerearen Nazinoarteko Eguna: gure eskolan bizipozez ospatuta

Igorreko Inazio Zubizarreta ikastetxea

Abenduaren 3a egun berezia da guretzako: Euskerearen Nazinoarteko Eguna ospatuten dogu Inazio Zubizarreta eskolan, eta aurtan be ilusinoz eta kolorez bete dogu gure ikastetxea. Euskereak urte osoan lagunduten deusku berba egiten, jolasten eta alkarregaz komuniketan, baina egun honetan bereziki gogoratu gura dogu zeozer gurea dala, maite doguna eta zaindu gura doguna. Goizean, lehenengo, zorian mezu berezi bat sortu dogu normalkuntzako ikasleok, eta megafoniatik gelaz gela entzun ahal izan da. Eskola osoan isiltasuna sortu da gure berbak entzuteko, eta emozino be-



rezia sentidu dogu, jakinda guztiok partekatu dogun mezua zala.

Ostean, patioan ipinita egoan "Euskaraz bizi gura dot" mural erraldoia ikustera joan gara. Lema hori osotuten daben letrak geletan egindako marrazkiak apaindu doguz ikasle guztiok. Emaizta bikaina izan da: kolorez betetako horma ikusgarri bat, gure eskolako sormen eta aniztasuna erakusten dauana.

Egun bereziak hamaiketako berezia be ekarri dau. Normalean hamaiketako osasuntsua jaten dogun arren, gaur txokolatezko bokata banatu deuskue guztiontzako. Festa giroak are gozoago egin dau momentua, eta alkarregaz disfrutau dogu.

Jarraian, geletara bueltauta,

euskereari buruzko Kahoot batean parte hartu dogu. Lehiaketa giroan, baina irribarrez eta laguntasunez jokatu dogu, eta gustura ibili gara euskereari buruz dakiguna frogatzen. Horrezaz gainera, egunean zehar euskal musikea, euskal jolasak eta beste hainbat jarduera egin doguz, euskeraz bizi eta gozatzeko.

Laburbilduz, oso ondo pasau dogu. Egun honek gogorarazoten deusku euskerea ez dala bakarrik ikasgaia: sentiduten dogun hizkuntzea da, gure artean lotzean gaituana. Horregaitik, gaur eta urte osoan zehar, gure mezua argi daukagu:

Maitatu, abestu, jantzatu, negar egin... bizi euskeraz!

AGENDEA

URTAILAK 2
ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

18:00etan, jubiladuentzako bingoa. Kultur Gunean.

AREATZA

08:00retatik 21:00etara, ikasgela egunero udaletxean zabalik.

Urtailaren 11ra arte Bonodenda kanpaina martxan Areatzako komertzioetan. Aliprox, Andikoa harategia, Gauzak denda, Arantza Zamalloa botikn, Estankoa, Denda Barri fruta-denda, + Ke... PAN okindegia, Vade retro ule-apaindegia eta Amaia ule-apaindegian erabili ahal dira bonuok.

ARRATIA

Norbere zaintzarako estrategiak ikastarorako izen-emotea, urtailaren 10era arte 94 631 17 17 telefonoan (Arratiako Udalen Mankomunitatea). Ikastaroaren saioak: urtailaren 14, 21 eta 28an; zezeilaren 4, 11 eta 18an, 17:30etik 19:00etara.

BEDIA

Martiaren 14an izango dan Kolazino Mendi Eguneko lasterketarako izen-emotea zabalik martiaren 1era arte, *sportmaniacs.com* helbidean.

DIMA

16:30etik 19:30era, astelehenetik eguenera liburutegia zabalik.

09:30ean, 4-18 urte bitartekoentzako urtekerea izotz pistara.

IGORRE

08:00retatik 22:00etara, ikasgela egunero zabalik Kultur Etxean.

Astelehenetik barikura liburutegia zabalik. Astelehenetik eguenera 16:00etatik 20:30era eta eskola opor egun eta barikuetan 09:00etatik 13:30era.

2026ko Gaztetxeak Bertsotan ekimenaren aurkezpena. 19:00etan, poteoa Kukumatik hasita: Ekhi Zuluaga, Aiala Irurtia eta Iradi Barrenetxea bertsolariakaz; 20:30ean, Gaztetxeak Bertsotan aurkezpena Kiñu Gaztetxean eta 21:00etan, bertso-afaria Kiñu Gaztetxean June Aiestaran eta Maddi Aiestaran-egaz.



Urtailaren 7ra arte, *Bizkaikoa peto-petoa* erakusketa editorial-bisuala. Elexalden.

LEMOA

08:00retatik 21:00etara, ikasgela egunero Kotxepinen zabalik.

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura Udal Liburutegia zabalik.

19:00etan, Harrera Elkartearen aurkezpena. Karabie Gaztetxean.

UBIDE

08:00retatik 21:00etara, Lopena espazioa zabalik egunero.

ZEANURI

Batxiler eta unibersidadeko ikasleentzat goizeko 08:00retatik gaueko 21:00ak arte ikasgela zabalik egunero. DBHko ikasleentzat, astelehenetik eguenera 17:00etatik 19:00etara.

Hipopresibo ikastarorako izen-emotea, *mazalaandratalde@gmail.com* helbidean. Ikastaroa astelehenero urtailaren 12an hasita, maiatzera arte, 18:00etatik 19:00etara. Gimnasioan.

ZEBERIO

Liburutegia zabalik. Astelehen, eguen eta barikuetan 16:30etik 19:30era, martitzenetan 16:30etik 18:00etara eta eguaztenetan 17:00etatik 20:00etara.

11:00etatik 14:00etara, umeentzako puzgarriak eta jolasak. Plazan.

URTAILAK 3
ARANTZAZU

09:00etan, urtekerea Azpeitiara, Burdinbidearen Euskal Museoa eta Loiolako Santutegia.

AREATZA

20:00etan, II. Emoten zara nonor Txapelketea. Laminetxe Gaztetxean.



IGORRE

11:00etatik 14:00etara eta 16:30etik



Zeanuri eta Usansoloko koruak batera Erregenetako bezperan

Urtailaren 5ean, astelehena, Zeanuriko Abesbatzak eta Usansoloko Orfeoak kantaldi bateratua eskainiko dabe Zeanuriko San Isidro ermitan, 19:00etatik aurrera. Zeanuriko Abesbatzetik BEGITU argitu dabenez, ahots nahasiko koru biek euskal kanta eta Gabon kantakaz osotutako erreperitorioa eskainiko dabe Erregenetako bezperan: *Adeste fideles, Seaska baten, Hator Hator, Haurtxo maite, Mesias sarritan, Oi Belenen...* "Gabonetan familia eta lagunen arteko bazkari eta afari ugari egiten dira, izan be, alkartzeko eta alkartasun horretaz gozatuteko egunak dira. Horregaitik, doinu ezagun eta atseginen erreperitorioa eskaini gura dogu Zeanurin", adierazo dabe abesbatzatik.

19:30era, Gabonetako Haurren Parkea. Aterpean.

19:30ean, Areatzako Bandaren Gabonetako kontzertua, Luis Iruarizaga Abesbatza eta Arratiako Musika Eskolako ikasleakaz. Lasarte Aretan.

URTAILAK 4
ARANTZAZU

11:00etatik 14:30era, umeentzako puzgarriak frontoian.

AREATZA

17:30ean, umeentzako *Nire zirkua* filmaren proiektzioa. Udaleko Areto Nagusian.

IGORRE

Zinea. 17:00etan, *Hanna y las Navidades olvidadas*; 19:30ean, *Flores para Antonio*. Lasarte Aretan.

13:00etan, Mangual binilo pintxada eta 19:00etan, Palestinaren aldeko enkante solidarioa. Axular Herriko Tabernan.



URTAILAK 5
ARANTZAZU

22:00etan, Hippy Jaia kotilioia. Herriko Tabernan.

AREATZA

18:00etan, Erregenetako Kabalgatea. Karpon hasita (eguraldi txarra egin ezker, plazan).

BEDIA

18:30ean, Erregenetako Kabalgatea eta txokolate beroa. Plazan.

DIMA

16:00etan, Dimako adinekoen egoitzetara kantari.

IGORRE

18:00etan, Erregenetako Kabalgatea.

LEMOA

23:00etan, Stankeik! kontzertua. Karabie Gaztetxean.

URTAILAK 7
BEDIA

Urtailaren 16ra arte, Baqueirako eski urtekerarako izen-emotea (zezeilak 20tik 22ra izango da urtekerea). Bebetekan 16:30etik 19:30era.

URTAILAK 9
IGORRE

19:00etan, eskupeleta partiduak. Olatz Arrizabalaga eta Eneko Artaraz, Amaia Aldai eta Imanol Agirreren kontra eta Izkander Torralba eta Mikel Goñi, Titin III. eta Oinatz Bengoetxearen kontra. Kiroldegian.

URTAILAK 11
ARTEA

13:30ean, Del Val taldearen kontzertua. Herriko Bentan.



IGORRE

Zinea. 17:00etan, *Tigre galdua*; 19:30ean, *La voce di Hind Rajab*. Lasarte Aretan.

URTAILAK 13
UBIDE

Arratiako Udalen Mankomunitateko kamioia baztertutako gauzak jasoteko. Zeozer atera gura dauanak datuak udaletxean emon urtailaren 12ra arte.

URTAILAK 14
IGORRE

17:30etik 19:00etara, Arratiako Udalen Mankomunitateko *Norbere zaintzarako estrategiak* ikastaroaren lehen saioa:

Emozioak eta komunikazioaren garrantzia. Kultur Etxean.

Zinekluba. 20:00etan, *West Beirut* pelikulearen proiektzioa eta solasalditxoa. Lasarte Aretan.

URTAILAK 16
AREATZA

19:00etan, *Areatza eraikitzen* solasaldia eta luntxa; Josu Basozabal (Areatzako EAjren bozeramailea) eta Begoña Pedrosa (Eusko Jaurilaritzako Hezkuntza sailburua). Udaletxeko aretoan.

IGORRE

19:00etan, *No estás loca: La verdad sobre la violencia vicaria* dokumentalaren proiektzioa eta solasaldia Maria Bestar zuzendariagaz. Lasarte Aretan.

URTAILAK 17
IGORRE

17:00etatik aurrera, Urte Barri Oi musika jaialdia. Kiñu Gaztetxean.

20:00etan, Antton Telleriaren *NININI* umorezko bakarriketean. Lasarte Aretan.



URTAILAK 18
IGORRE

Zinea. 17:00etan, *Tom y Jerry: Aventura en el tiempo*; 19:30ean, *Aro berria*. Lasarte Aretan.



KOMIKIA

Iman Olatu



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

AUTOA KONPARTIDUTEA

Leioako campusera doazen Arratiako EHUKo ikasleen bila nabil kotxea eta gastuak konpartiduteko. Telefonoa 690 307 910.

GELA BEHAR DOT ALOKAIRUAN

Pisu konpartidu baten, persona bakar batentzako gela bat behar dot alokairuan. Telefonoa: 642 912 390.

MAHAIA OPARITZEN DOT

Eskola adineko umeentzako mahai aproposa oparitzen dot. Telefonoa 630 363 971.

DORDOKEA TOPAU DOGU

Dordoka bat topau dogu Igorren, San Juan auzoan. Zurea bada, 611 617 137 zenbakira deitu.

KIMIKAKO KLASEAK HARTU GURA DODAZ

Bigarren Batxilergoko kimika klaseak euskeraz jasoteko nonoren bila nabil abuztuaren hasieratik, ordutegi malguagaz, gero, klaseak urte osoan zehar izateko asmoz zapatuetan ordu biz. Deitu: 638 889 851.

GITARRA KLASEAK EMOTEN DODAZ

Hari's Rock School. Gitarra klaseak

emoten dodaz adin guztietarako. Igorreko Kiñu Gaztebtean. Interesdunek deitu 664 303 528 telefonora edo idatzi a.harillo.gracia@gmail.com helbidera.

TABERNARI EUSKALDUNEN BILA GABIZ

Axular Herriko Tabernan tabernari bi behar dira astegoienerako. Interesdunek tabernan bertan galdetu, axularke@gmail.com helbidera idatzi edo telefonoz deitu: 94 673 70 92.

BIZIKLETEA SALGAI

Umeentzat, koloretsua, Dora Esploratzailearen marrazkiekaz. Lauzpabost urteko umearentzat. Errobera txikerrak, aurrean zestillea eta atzean pelutxearentzat kutxa. Egoera eta itxura onean. Eskatu edo ikusteko deitu: 670 825 753.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa



Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Antton Telleriaren *NININI* bakarriketarako.

Janire Aierdi (Areatza)
Alaitz Olabarri (Igorre)



2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Flores para Antonio* filmarako.

Iratxe Gondra (Igorre)
Nagore Bernaola (Dima)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUk 23 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

Dia %
PEDRO
AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
-
SABINO ARANA 38
IGORRE
-
Tlf. 94 631 92 00
f

**GORBEIALDE**
LANDA GARAPENA
ARRATIA, UBIDE ETA ZEBERIOKO
GARAPENEAN LAGUNTZEN

Ipini zure iragarkia Begitun
649 979 115
inigoirua@begitu.eus

HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA
Blatza dago jabetza
-Salmentan zein alokairuan
Lurak (erakitzeko, landak, basak...)
Etxebizitzak (osak, berriak, etxak...)
Garaioak
Lokal komertzialak
Pabiloiak...
-Solazatioak
Bidea dago proiektu
-Irakur berriak erakitzeko
-Informazioa
-Arkitektura-proiektuak
-Baina diseinua
-CEE eta IIE-ak
-Hirigintza aholkularitza
-Negozioak irekitzeko
kudeaketa
**arratia**
INMOBILIARIA
Garaioak - Agote 25. Solaz - Agote
Agoteak - 94 631 31 89 - 435 96 31 31
- 94 631 31 31 - 94 631 31 31
- 94 631 31 31 - 94 631 31 31
- 94 631 31 31 - 94 631 31 31

Kili~Kili
Ansoa eta Puntuturra
Lehendakari Agote 10 - IGORRE (Bizkaia)
Tel: 94 673 43 81

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis
Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tel: 94-673-70-87
Tel: 609-79-40-54

**Olaetxe**
OPTICA SINTURA
Graduazioak
Ikusmen terapia
Ikusmen gubitua
Begiko tentsioa
Lentillen adaptazioa
Kiroletarako betaurrekoak
Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel: 94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

**ASESORIA**
Gorbeialde
Juridikoa - Fiskala - Landak - Kontularitza
Askatasun 28, 1B - 48143 Areatza
Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com



Pagomakurre Gorbeialdeko Parke Naturaleko lekurik ezagunenetakoa da. Urtero milaka lagunek egiten dabe bertara igoerea: batzuk tontorrerako bidean, beste batzuk inguruko paraje ederrez goatzera... Bisitari ugartasun (inguruetakoko herritarak, txangozaleak...) horrek, oster, arazo argi bat ekarri dau: aparkalekua askotan beteten da eta, behin beteta dagoanean, auto ugari ixten dira ez jagokon leketan aparkaut. Horrek segurtasun-arazoak sortzen ditu, bideak oztopatzen dauz eta larrialdi-zerbitzuen lana be zailtzen dau.

Egoera horrerri erantzuteko, proposamen bat landu da, eta helburua ez da aparkalekua handitzea, sarrera eta erabilera hobeto antolatzea baino. Horretarako, Pagomakurren sarreran ibilgailuak zenbatzen dituan sistema bat jarriko da; sistemeak ez dau irudirik hartzean ezta datu personalik gordeten be. Informazio praktikoa emoten dau: momentu horretan zenbat leku libre dagoan. Holan, bisitariak ebatzia informazioagaz hartu leike: gora igon edo herrietako aparkaleku disuasorioetan itxi kotxea.



Pagomakurre:

*sarbidea eta aparkalekua
modu ordenatuan kudeatzeko
proposamena*

Beste alde batetik, inguruko herrietako aparkalekuek 0 emisinoetako ibilgailuentzako leku bereziak eta karga elektrikoko puntuak be aurreikusten dabez, ingurumenagazko eredu jasangarriago batera hurbiltzeko.

Helburu nagusia argia da: bertakoen eta bisitarien esperientzia hobetu, segurtasuna bermatu eta gure inguruko naturari kalte gitxiago egitea, Pagomakurreko aparkalekuaren tamaina aldatu barik.

